

Auzo proiektu bat da Auzoenea, auzo hontakoa, pentsatu, amestu, lagundu eta nahi dugun auzorako eta auzoarengatik lan egiten duen proiektu bat. Hamaika proiektu desberdinetan parte hartzen dugu, hala nola, Jai batzordean, Piparrika hiri baratzean, Plazara! gune komunitario batengatik, AZ auzoko garapenerako taldea, Zurriburu, San Cernin... Eredu desberdinen alde lan egiten dugu, besteak beste, errespetua, euskera, elkarlana, elkartasuna, sormena, analisi kritikoa, aniztasuna, erlazioak... Proiektu honarako, zorionez, bi lokal dauzkagu, Aldapa kalean bat eta Descalzos kalean bestea, urte osoan auzokide eta eragilei irekitak, ekintzaz, bileraz, ikastaroz hitzaldiz...jositako lokalak. Zoriontasunez eta etxean sentitzeraen sentzazioaz beteriko lokalak, heldu zein txikiendako espaziokin, kolorez eta melodiaz beteriko lokalak, familia eta familia ez direnentzako lokalak.

Proiektu bat, bi lokal. Gastu haunitz eragiten dutenak eta zure laguntzaren beharra dutenak. Patrika minduta dugu.□

Izan amorante edo bihotz-lapuraren bitartez ere lagundu dezakezu Auzoenea. Zer esan nahi du horrek?

Diru kopuru bat emanaz izan zaitezke Amorante, zuk nahi edo ahal duzun kantitatearekin lagunduz, noiznahikoa, hilabeterokoa, urterokoa...edo nahi bezala. Eskertu nahian, ikastaroetan izena emateko lehentasuna izanen duzu. Bihotz-lapurra izatea da beste aukera, 8€- ko kantitatearekin lagunduz hilabetero. Eskertzeko asmoarekin, berriro ere, lehentasuna izanen duzu ikastaroetan izena emateakoan, baina baita ere 8€ deskontua ikastaroetan, dohainiko mahai eta aulki mailegua (disponibilitatearen arabera) eta txikienezako urtebetetzetarako gelak uztea (disponibilitatearen arabera ere noski).

Lasterbide honen bitartez edo Aldapa Kaleko 3/5 zenbakiko bulegoan egin zaitezke amorante edo bihotz-lapurra.

